



MUNGIA
UDALA
AYUNTAMIENTO

www.mungia.org



HITZALDIA: GERRA ZIBILA MUNGIAN (1936-1937)

**CHARLA: ASPECTOS DE LA GUERRA
CIVIL EN MUNGIA (1936-1937)**

Argazkia: Ramiro Menéndez

APIRILAK
9
abril
19:00
Torrebillera
Kultur Etxea

Hizlaria: Aitor Miñambres
(Berangoko Burdin Hesiaren
Oroimenezko lanaren arduraduna,
Sancho de Beurko Alkarteko kidea).

Edukia: Hitzaldiak ordu bete inguruko iraupena eta Iñaki Olabarrietak itxitako argazkiez horniduko da; bertan azalduko dira Mungian Gerra Zibilak izan zituan eragin eta ezaugarrien ganeko zehaztasunak: "Euzko Gudaroste"ko mungiarrak, Burdin Hesia eraikitea, herrian gertatu ziran bonbardaketak, inguruetako gudak eta, besteak beste, herria frankisten tropen eskuetan jausi zanekoa, eta abar.

Ponente: Aitor Miñambres
(Responsable del Memorial del Cinturón de Hierro de Berango.
Miembro de la Asociación Sancho de Beurko).

Contenido: Conferencia de una hora de duración acompañada de fotografías cedidas por Iñaki Olabarrieta que tratará sobre diversos aspectos de la Guerra Civil en Mungia: los combatientes mungiarras en el ejército vasco, la construcción del Cinturón de Hierro, los bombardeos sufridos por la localidad, los combates vecinos a la misma y la caída del pueblo en manos de las tropas franquistas entre otros.

77 urte joan dira Mungia Bando nazionalak hartu ebanetik hona, eta Mungiako Udalak jarduera honen bidez hurreratu egin gura dau gure historiaren zoritxarreko une latz horreek bizi ebezan mungiarrakana.



Argazkia: Ramiro Menéndez

Hori dala eta, Mungiako Udalak, bere Kultura Sailaren bidez, Sancho de Beurko Alkartekoa kidea dan Aitor Miñambresen eskainiko dauen hitzaldi hau antolatu dau, eta hitzaldiari laguntzeko Iñaki Olabarrietak itxitako argazkiak erakutsiko dira; hain zuzen bere, belaunaldi barriagoetakoek gure aurrekoek bizitako une latz eta mingarri horreen barri izan daien.

“**Burdin Hesia**” (bere benetako izena “Defensa Próxima de Bilbao” o “Cinturón de Bilbao” zan) 1936 eta 1937 bitartean eraiki eban Eusko Jaurlaritzak (Euskadiko behin-behineko Gobernuak), matxinatuek eraso egin ezker, Bilbo defendatzeko, hau da, Sondikako aireportua, Zolloko urtegia eta Bilbo bera artilleriaren tiroetatik zaintzeko.

Diseinua hainbat lerro egiteko egitasmoa zan, eta bertan ondokoak egozan kokatuta: lubakiak, metrailadoreen finkalekuak (habia), parapetoak, babesgune aktiboak eta pasiboak, alanbradak, behatokiak eta era guztietako defentsak, kasu batzuetan hormigoi armatuagaz eta beste material galkor batzuekagaz eginak, zuraz edo lurzakuez esate baterako. Eraikitzeko orduan bost sektoretan banandu zan Burdin Hesiaren trazatua:

1.a: Zierbena sektorea, udalerrri horretatik Soduperaino.;

2.a: Ganekogorta sektorea, Sodupetik Ugaoraino.;

3.a: Upo Mendiguneko sektorea, Ugaotik Usansoloraino.;

4.a: Urigoiti sektorea, Usansolotik Larrabetzuraino.;

eta azkenik 5.a: Sortaldeko sektorea, Larrabetzutik Berangoraino, Urdulizko eta Barrikako hesia indartuta.

Mungiako defentsak 5. sektoreko lerro nagusian kokatuta egozan, Lauromendi eta Mantulizetik hasi eta Berreagaraino. Lerro hori Artebakarrean zeharkatzen eban Derio-Mungiako bideak eta trenbideak.

Cuando se cumplen 77 años desde que Mungia fuera tomada por el bando nacional, el Ayuntamiento de Mungia celebra una jornada de acercamiento hacia aquellos y aquellas mungiaras que vivieron aquel episodio trágico de nuestra historia.

El Ayuntamiento, desde su área de cultura, organiza esta charla que será impartida por Aitor Miñambres, miembro de la Asociación Sancho de Beurko y con fotos cedidas por Iñaki Olabarrieta, para dar a conocer a las nuevas generaciones éstos momentos dolorosos de nuestro pasado.



Argazkia: Asier Aurrekoetxea



Argazkia: Luis Ruiz de Aguirre

El “**Cinturón de Hierro**”, cuya verdadera denominación era “Defensa Próxima de Bilbao” o “Cinturón de Bilbao”, fue construido entre 1936 y 1937 por el Gobierno Provisional de Euskadi en un intento de defender Bilbao, en caso de un asedio del Ejército sublevado, conservando el aeropuerto de Sondika y el embalse de Zollo y protegiendo la villa del tiro de artillería.

El diseño del cinturón de hierro consistía en una serie de líneas que incluían trincheras, asentamientos para ametralladora (nidos), parapetos, abrigos activos y pasivos, alambradas, observatorios y toda suerte de defensas, realizados en algunos casos de hormigón armado y en otros de materiales perecederos como la madera o los sacos terreros.

Para su construcción, el trazado del Cinturón de Hierro se estableció dividido en cinco sectores: 1º. Sector Zierbena, abarcando desde este término hasta Sodupe; 2º. Sector Ganekogorta, desde Sodupe hasta Ugao; 3º. Sector Macizo de Upo, que comprendía desde Ugao hasta Usansolo; 4º. Sector El Gallo, desde Usansolo hasta Larrabetzu; y finalmente 5º. Sector Este, que comprendía desde Larrabetzu hasta Berango, reforzando el anillo Urduliz y Barrika.

Las defensas situadas en Mungia se hallaban dentro de la línea principal del 5º sector, desde Lauromendi y Mantuliz hasta Berreaga. El cordal era atravesado por la carretera y vía férrea de Derio a Mungia a su paso por Artebakarra.

Sancho de Beurko irabazi asmo bako alkarte da, Gerra Zibilak Euskadin izan zituan ezaugarri eta ondorioen ikerketa lantzen dauena; bere izena Luis Ruiz de Aguirre y Urquijo (1908-1989) barakaldoarrarengandik hartu eban, izan bere gizon horren ezizena "Sancho de Beurko" izan zan, hain zuzen bere, Metrailadore-konpainiaren "Olabarri" batailoiaaren Kapitaina eta Euzko Gudarostearen Armada-taldearen Kapitain Nagusia. Venezuelara erbesteratua izan zan, olerkari eta idazlea eta gerrearen ganeko artxibo bikain baten "alma mater" a; izan bere, Euskadiko gobernu erbesteratuak aginduta, horrexetara dedikatu zan erabat 60ko hamarkadaren akabu aldetik aurrera.

Horrexegaitik, Luis Ruiz de Aguirrek hasitako lanari ekinez, Sancho de Beurko alkarteak Euskadiko Ejerzito-taldearen ganeko informazio guztia batzen egiten dau lan; era berean, kontuan hartzen ditu euskaldunakaz batera borrorokan ibili ziran Asturias eta Santanderreko indar espedizionarioak, Espainiako II. Errepublikako Indar Armatuen Iparaldeko Ejerzitoa osatu ebenak; baita Euzko Itsas Gudarostea eta segurtasun indarrak bere. Eta era berean, Ertzaña, Asalto-guardia, Errepublikako Guardia Nazionala eta Foru-Poliziak. Horren ganera, beste helburu bat Armada Nazionalaren unitateen ganeko informazio guztia batu gura da; kontuan izanda, bertan gudan ibili ziran indar alemaniar eta italiarrak.

La **Asociación Sancho de Beurko**, es una Asociación sin ánimo de lucro dedicada al estudio de la guerra civil en Euskadi que toma su nombre del baracaldés Luis Ruiz de Aguirre y Urquijo (1908-1989) más conocido por el seudónimo que adoptó, "Sancho de Beurko". Capitán de la compañía de ametralladoras del batallón "Olabarri", Comisario General del Cuerpo de Ejército Vasco, exiliado en Venezuela, poeta y escritor, "alma mater" de un monumental archivo sobre la guerra, al que se dedicó completamente a partir de finales de los 60, por encargo del Gobierno de Euskadi en el exilio.

Es por ello que siguiendo el trabajo que comenzó Luis Ruiz de Aguirre la Asociación Sancho de Beurko se dedica a recuperar toda la información existente sobre el Cuerpo de Ejército de Euskadi incluyendo las fuerzas expedicionarias de Asturias y Santander que combatieron junto a los vascos formando el Ejército del Norte de las Fuerzas Armadas de la II República Española, también la Marina Auxiliar y las fuerzas de seguridad: Ertzaña, Guardia de Asalto, Guardia Nacional Republicana y Policías Forales. También se pretende recuperar toda la información posible sobre las unidades del constituido como Ejército Nacional, incluyendo a las fuerzas alemanas e italianas que hayan participado en combates en los frentes vascos.

Antolatzaileak / Organizan:



MUNGIA
 UDALA
 AYUNTAMIENTO



Argazkia: Asier Aurrekoetxea